

## NOMADAK

Eider Burugain Iriarte

*Oiartzun*

Askatasuna arnas dezakedan paradisura atera,  
aske sentitu arte ihes egin,  
arazoak isildu arte oihu,  
errealitatea zein den ahaztu arte amestu,  
arnasarik gabe gelditzen naizen arte.  
Libre naiz, lortu dut, beti izan baitut helburu.  
Nahikoa ez da, hala ere.  
Inoiz ez dut lortu guztiz eskapu egitea,  
dena ahaztu eta ez itzultzea.  
Ihes amaigabeen biziko nintzateke  
azken hasperena arte.  
Beti iristen da une bat, hala ere,  
eguna hasten den lekuan amaitzen dena,  
hurrena paraje berean abiatzeko, berriz ere.  
Ez dut lortu, beraz, guztiz burujabe izatea.  
Hurrengo egunean gertatuko dena ez jakiteak  
beldurtzen gaitu,  
ohikotasunetik ateratzeak, inposatutakoarekin bat ez  
egiteak,  
altxatu eta «ni banoa!» oihukatzeraz ausartzeak.

Seguru sentitu nahi dugulako gizarte aldakor honetan.

Aldaketak izutzen gaitu, desberdintasunak.

Bizitzeko zergatia izan beharko lukeen arren.

Baina, ez da.

Egonkortasunean bizitzeak zorutzen gaituela dirudi, egunsenti guztiak berdinak diren ohikotasunak.

Bizitzeko zirrarak monotonia izatearen itxura du.

Baina, ez da.

Nazkatu naiz dagoeneko,

ez naiz munduratu amen-amen egiteko.

Bizitzeko zioa ez dut topatu oraindik,

eta argi daukat ez dudala sinestarazi nahi dizkiguten gezurretan aurkituko.

Ni banoa! Zu?